

B1 MAILA

3. ZATIA

BAT-BATEKO ELKARRIZKETA

Materiala eman (argazkien fitxa).

- Azterketariei argazkien fitxa bana eman eta egitekoa zein den irakurri. Elkarri begira egongo dira azterketariak.
- Fitxa mahai gainean egongo da, azterketariek ondo ikusteko moduan. Minutu erdia izango dute argazkiak ikusteko eta pixka bat pentsatzeko.

Ikasleen jardunaren bitartean.

- Ikasleei egiten utzi, baina hizketan pasatzen duten denbora neurtu.
- Beharrezkoa bada, esku hartu, moztu, txanda aldatu...
- Horretarako beheko galdera osagarriak balia ditzakezu.

Aldaketa handiak bizitzan

Eusko Jaurlaritzak inkesta bat bidali dizue. Jakin nahi dute ea zerk eragiten dituen aldaketa handiak euskal herritarren bizitzan. Jarraian aukera batzuk ikusiko dituzue. **Eztabaidatu** bion artean zeintzuk diren hiru garrantzitsuenak eta saiatu **adosten**. Horretarako, eman aldeko eta kontrako **arrazoia**k.

GALDERA OSAGARRIAK

- Zein da, zuen ustez, adinik egokiena gurasoen etxetik joateko?
- Zer da zuentzat garrantzitsuagoa gustuko lanbidean aritzea soldata txikiarekin ala soldata ona izatea gustatzen ez zaizun lanpostu batean?
- Zein lanbidetan dago lan egiteko aukera gehien?



Lana



Seme-alabak



Bikotekidea

Aldaketa handiak bizitzan

Etxebizitza



Unibertsitatea



Autoa

